

ESKUALDE BILERETARAKO INFORMAZIOA 2015eko maiatza

1.- HEZIBERRI 2020 proiektua. Curriculum dekretu berriak

2013ko abenduan LOMCE argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta 2014an zehar, lege hori hezkuntza etapa bakoitzean garatzeko curriculum dekretuak argitara eman ditu Hezkuntza Ministerioak. Legedi horri (legea + curriculum dekretua) Oinarrizko Arautegia deritzo, eta autonomia erkidegoek beren curriculum dekretuak argitaratzeko bete beharreko gutxienekoak biltzen ditu.

Aldi beran, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak HEZIBERRI 2020 proiektua aurkeztu zuen 2013an, honako ideia honi erantzutea helburu harturik: *“Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin, etorkizuneko belaunaldiak ongi prestaturik egon daitezen Euskal Herrian eta munduan bizitzeko”*. Proiektuak 3 fase ditu: **1. Euskal eredu pedagogikoa finkatzea / 2. Eskola curriculum berria lantzea eta onartzea / 3. Hezkuntzaren Euskal Legea sortzea.**

1. fasea 2014ko otsailean amaitu zen, **“Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa”** dokumentua onartuta. BIHE, EHIGE eta SAREAN euskal eskola publikoko elkarteek eskatu dokumentuan jasota gera zedin ez gaudela azken dokumentuarekin ados, eskola publikoarentzat funtsezkoak diren hiru hutsune dituelako:

- 1) Gure gaur egungo hezkuntza sistemaren ahultasunen eta indarguneen berariazko diagnostikorik eza.
- 2) Proposatutako marko pedagogikoan LOMCEk zer eragin izango duen ez aztertzea.
- 3) Euskal Eskola Publikoak euskal hezkuntza sistemaren ardatz egituratzaile, oinarrizko eta lehentasunezkoa izan behar duela dioen printzipioa ez islatzea.

1. fasea amaitutakoan, Hezkuntza Sailak 2. fasea jarri zuen abian, eskola curriculum berria lantzeko. Puntu horretan, ordea, aurrez aurre topo egin zuen oinarrizko arautegiarekin (LOMCE eta Hezkuntza Ministerioaren curriculum dekretuetako gutxienekoak), eta Eusko Jaurlaritzak bi aukera besterik ez zituen:

a) legeak horretara behartuta, LOMCEk eta haren curriculum dekretuek ezarritako neurriak bilduko zituzten curriculum dekretu batzuk lantzea.

b) adierazi bezala LOMCeren kontra egonik, LOMCEri entzungor egitea eta hezkuntza sistema propioaren bidean aurrera egiteko modua emango zuten curriculum dekretu batzuk lantzea.

2014/10/27an, Hezkuntza Sailak Oinarrizko Hezkuntzako curriculum dekretuaren zirriborroa aurkeztu zuen. Testu horretan, agerikoa zen LOMCErekiko mendekotasuna; izan ere, lege haren alderdirik negatiboenak barne hartzen zituen (hezkuntza etapa bakoitzeko errebalida azterketak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako titulu bikoitza, ikasleak oso hasieratik bereiztea hezkuntza ibilbideen arabera edo curriculum gaitasunak birzentralizatzea dakarren banaketa).

Hezkuntza komunitatea, oro har, zirriborro haren kontra azaldu zen eta hura bertan behera uztea eskatu zuen. Hezkuntza Sailak, ordea, alegazioak aurkezteko eta iritzi trukea bideratzeko bilerak egiteko aldi bat zabaldu zuen, eta, ondoren, 2015eko otsailaren 18an, Haur Hezkuntzarako eta Oinarrizko Hezkuntzarako dekretu proposamenak aurkeztu zituen.



Aurkeztutako dekretu proposamen haietan, nabarmen aldatuta zegoen hasierako zirriborroaren edukia: LOMCEko neurri batzuk desagertu ziren, baina eutsi egin zitzairen beste batzuei, nahiz eta idazketa ez izan hasieran bezain zehatza, neurri horiek aplikatzeari zegokionez. Otsailean, halaber, Batxilergorako dekretu zirriborroa aurkeztu zuen, beste dekretu proposamenen ildo berari jarraituz.

Dekretu proposamen horien edukia aztertuta, iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzak LOMCE ezartzearen aldeko apustua egin duela: dokumentu horietan agertzen diren neurriak ez dira LOMCEk agindutako berberak, ageri-agerian, baina lege hori aplikatzea dakarte, praktikan.

Hala, LOMCEk epe laburrean (2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan) ezartzera behartzen duen neurri gehienak HEZIBERRI dekretuen zirriborroetan jasota daude. Hala ere, epe ertainera begirako neurriei dagokienez (2016-2017 ikasturtetik aurrera) ez daude hain zehatz jasota, edo horiek beste modu batera aplikatzea planteatzen da. Hori ikusirik, iruditzen zaigu Hezkuntza Sailaren asmoa izan dela curriculum dekretuak 2015aren amaierako hauteskunderi begira osatzea (izan ere, hauteskunde horien emaitzaren arabera, litekeena da aurrera begira LOMCE aldatu behar izatea), euskal hezkuntza sistemaren benetako beharrei erantzuteari begira baino gehiago.


Edonola ere, dekretu horiek ezartzeko egutegia 2015-2016 ikasturtean abian jarri beharko litzatekeen arren, ez daukagu haien behin betiko idazketa; eta, beraz, ez daukagu horiek aztertzerik. Dena dela, dekretuak ofizialki argitara eman ez diren arren, Hezkuntza Sailak ezarri ditu, dagoeneko, LOMCEn aurreikusitako zenbait neurri (erlijioaren tratamenduaren aldaketa, Ingurune ikasgaia zatitzea, etab.), eta orain, gainera, asmoa du Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleei proba diagnostikoa egiteko, 30 ikastetxetan (15 publiko eta 15 itundu). Egoera hori ikusita, EHIGEk deialdi publikoa egin die proba hori egiteko aukeratutako ikasleen familiei, ez ditzaten beren seme-alabak proba egitera bidali. Alde batetik, LOMCE zuzenean aplikatzea esan nahi duelako baina, bestetik, proba horrek ez duelako inolako justifikazio pedagogikorik eta bertan behera botako dituelako 4. mailako diagnostikoko probekin orain arte egindako lan guztia, ezingo baitugu hobekuntza planik ezarri, gure ustez, aurreko ikasturteetako azterketa konparatiborik ez badugu. Gainera, Lehen Hezkuntzako bi urteko ziklokako antolaketa etetera behartuko du.

2.- “Balio etikoak eta sozialak” ikasgaia dela eta Eskola Kontseiluan aurkezteko proposamena.

Erljioko ikasgaiaren tratamendua aldatzea izan da Euskadin LOMCE aplikatzeetik eratorritako lehen neurrietako bat. Orain arteko hezkuntza legearen arabera (LOE), erlijioa ikasgaia nahitaez eskaini beharrekoa zen ikastetxe guztietan, eta ikasgai hori ikasi nahi ez zuten ikasleek hezkuntza arreta jaso behar zuten, curriculumeko ikasgaiak landu ez arren. Hori dela eta, erlijioa irakasgaia ebaluaziotik kanpokoa zen, eta ikasgai horren notarik ez zen agertzen ikasleen espediente akademikoan.

LOMCErekin, ordea, egoera hori aldatu egin da, erlijioa ikasgaia aukeratzeko ez duten ikasleak behartu egiten dituelako hautazko beste ikasgai bat aukeratzera (Balio kultural eta sozialak, Lehen Hezkuntzan, eta Balio etikoak, DBHn). Hala, biak izango dira ebaluagarriak eta agertuko dira ikasleen espediente akademikoan, eta horrek ondorioak izan ditzake zenbait alderditan, hala nola batez besteko amaierako notan, beketan eta abarretan.

Batxilergoan, bestelakoa da tratamendua: erlijioa hautazko ikasgai modura hartzen da, eta ez da nahitaezkoa ikasgai horren ordezkorik eskaintzea. 2015-2016 ikasturtean, Eusko Jaurlaritzak, LOMCE hertsiki aplikatuz, aldaketa horiek egiten hasi da Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailetan, eta aurreikusita dago gainerako etapetan gauza bera egitea hurrengo ikasturteetan aplikatzea.



Egoera horretan, EHIGE Konfederazioak, eskola publiko laikoaren defentsan, neurri horren kontrako kanpaina bat antolatu nahi du; hain zuzen ere, ikastetxe publikoetako eskola kontseiluetan proposamen bat aurkeztea eta onartzea planteatuko du, **“erlijio sinesmenen irakaskuntza funts publikoek sostengatutako ikastetxeetatik ateratzeko eta, edonola ere, irakaskuntza hori curriculumetik eta eskola ordutegitik kanpo eskaintzeko”**.

3.- Eskola garraioaren egoera

Urtarrileko eskualde bileretan esan bezala, eskola garraioa da BAIKARAren lehentasunezko lan ildoetako bat. Martxoaren 24an bilera bat egin zen IGEekin, Donostian, gai horri buruz. 12 IGEtako ordezkariak parte hartu zuten bileran, eta nagusiki alderdi hauez jardun zuten: eskola garraioa plazak esleitzeko irizpideen aplikazioaren aldaketa eta autobusen ibilbideen murrizketa, 2013-2014 ikasturtearekin alderatuta. Era berean, murrizketa horiek jasan dituzten ikastetxeen batasuna sendotzeko premia nabarmendu zuten, orain arte ikastetxe bakoitzak bere kasa aurre egin baitio arazoari.

Batasuna lortzeko, ordea, ezinbestekoa da ikastetxe bakoitzaren egoeraren berri xehea izatea; eta, hala, informazio hori eskatzea erabaki zen. Bi iturri erabiliko dira informazioa biltzeko: ikastetxeak edo IGEak, zuzeneko informazioa jasotzeko, eta Eusko Legebiltzarra, ikasturte honetan ezabatutako autobus ibilbideei buruzko informazio ofiziala jasotzeko.

Informazioa eskuratu bezain laster, egoeraren azterketa egin eta zer neurri hartu erabakiko da.

4.- Ikasle etorkinen eskolatzea dela eta IGEetan sortutako kezka.


Ikasle etorkinen eskolatzea beti izan da alderdi kezkarria Federazioarentzat eta IGEentzat. Izan ere, ikasleak sare pribatu-itunduaren eta sare publikoaren artean %50ean banatuta badaude ere, gutxi gorabehera, ikasle etorkin gehienak sare publikoan eskolatuta daude.

Historian zehar, Gipuzkoan nahiko orekatua izan da sareen arteko banaketa –Arabian eta Bizkaian ez bezala–, baina azken urteetan aldatu egin da egoera hori. Hala, 2008-2009 ikasturtean, esaterako, ikasle etorkinen %56 ari zen sare publikoan, eta %44, sare pribatu-itunduan. Azken urteetan, aldiz, ehuneko horiek aldatu egin dira, eta datu berriagorik ezean, 2011-2012 ikasturtean, adibidez, ikasle horien %68 ari zen sare publikoan eta %32 sare pribatuan.

Ikasle etorkinen banaketaren desoreka, ordea, ez da sareen artean soilik gertatzen; sare publikoaren beraren baitan eta ikastetxe publiko bat baino gehiago dituzten herrietan ere ikusten da desoreka. Badira ikasle etorkinen ehuneko handia duten ikastetxe publiko batzuk, eta, herri berean, beste ikastetxe publiko batzuetan askoz ere txikiagoa da ikasle etorkinen ehuneko. Egoera horixe dute, hala nola, Irunen, Erreterian, Eibarren, Lasarten, etab.

Hori ikusirik, IGE batzuk, Lasarteko Sasoeta ikastetxekoa, adibidez, zenbait ekimen planteatzen ari da egoera horri aurre egin eta ahal den neurrian zuzentzeko. Bilerak egin dituzte Hezkuntza Ordezkaritzarekin, plangintzaz, eskola mapaz, baliabideez eta abarrez jarduteko; eta eskariak egin dituzte Udalean, auzi honi aurre egiteko herri mailan. Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean agerraldia ere eskatu dute, alderdiei adierazteko egoera honi loturik zer-nolako kezka eta proposamenak dituzten.

Desoreka sare publikoan nahiz sareen artean gertatu, begi bistakoa da egoerari aurre egin behar zaiola, gero eta ikastetxe gehiagotara zabaltzen ari baita kezka.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

Eztabaida ez da mugatu behar, gure ustez, ikastetxera, ezta hezkuntza arlora ere: gizarteko beste arlo batzuetara ere zabaldu behar da. Izan ere, gauzak horrela jarraituz edo egoera okertuz gero, gure herrietan gizarte haustura jasateko arriskua izango dugu. Hori dela eta, Federazioak beharrezkoa irizten dio datorren ikasturtean gai honi lehentasuna emateari eta agenda politiko eta sozialean txertatzeari. Lehen urrats modura, ezinbestekoa iruditzen zaigu gaur egungo egoeraren datu erradiografia ahalik eta zehatzea izatea, herriz herri nahiz lurraldez lurralde. Hortik abiatuta, IGEen lankidetzarekin, neurri eta ekimen zehatzak planteatu ahal izango ditugu egoera honek eragindako udalerrietan (udalarekin, herriko elkarteekin eta abarrekin batera), eta, era berean, planteamendu orokorrak egin ahal izango ditugu eztabaida gizarte osora zabaltzeko (adibidez, ponentzia aurkeztu Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoei).

5.- Euskal Eskola Publikoaren jaiak.

Aste batzuk besterik ez dira falta euskal eskola publikoen jaiak ospatzeko: Euskal Eskola Publikoaren 24. Jaia egingo da ekinaren 7an, Elgoibarren, eta Eskola Txikien jaia ekainaren 14an, Gabirian.

Elgoibarko jaiari dagokionez, aipatzekoa da apirilaren 24an egin zela jaiaren kantaren aurkezpena. Esteka honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus/es/jaku-jata-abestia>

Era berean, esteka hauetan ere eskura daiteke jaiari buruzko informazioa.

- webgunea: <http://www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus>
- Facebook: <https://www.facebook.com/euskaleskola.publikoarenjaia>

Gogoan izan, halaber, ekainaren 14an Eskola Txikien jaia egingo dela Gabirian. Jai horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, sakatu esteka hau:

http://www.eskolatxikiak.org/orriak/2015_Gabiria.html

6.- Intereseko beste gai batzuk

6.1 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren 2015eko diru laguntzak.

2015eko Guraso Elkarteentzako diru laguntzen deialdia Maiatzak 14an Euskalherriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. Eskaera aurkezteko epea hilabetekoa da, beraz ekainak 12rako aurkeztuta egon beharko dira. Gogoratu deialdi honetan 2015. urteko jarduerak sartzeko dira (urtarriletik abendura). Datozen egunetan bete behar diren imprimakiak eta jarraibideak jasoko duzue, eta gogoratu eskaeraren aurkezpena BAIKARAREN bitartez egin dezakezuela.